
UDAL ASANBLADAK UDAZKENA 2011

ASAMBLEAS MUNICIPALES OTOÑO 2011

UGARTE

AZAROAK 22 NOVIEMBRE **19:00h**
UGARTEKO ELIZA IGLESIA DE UGARTE

AURRETIKO INFORMAZIOA INFORMACIÓN PREVIA

Orri honen bidez UGARTEko udal auzo asanblada prestatzeko baliogarria gerta litekeen material bat eskaintzen da. Auzokideek asanblada nola garatuko den argi izan eta aurreko urteetako asanbladetan jorratutako gaiak oroitarazteko informazioa luzatzea da asmoa.

Era berean, aurrera begirako proposamenak egiteko erreferentzia egokia izango delakoan, 2009 eta 2010 urteetan ospaturiko asanbladetan jorratutako gaien laburpen bat ere jasotzen da.

Mediante esta hoja, se ofrece un material que sirva para preparar la asamblea municipal de UGARTE, de manera que los vecinos puedan tener una idea clara de cómo será el desarrollo de la misma, y posean además información para refrescar los temas tratados en años anteriores.

Se ha realizado un extracto de los temas tratados en las asambleas de 2009 y 2010, entendiendo que estas pueden ser una referencia suficiente para proponer temas de cara al futuro.

UGARTEKO UDAL ASANBLADA 2011. ALDEZ AURREKO INFORMAZIOA

ASAMBLEA MUNICIPAL DE UGARTE 2011. INFORMACIÓN PREVIA.

2009KO UGARTEKO ASANBLA- DAN JORRATUTAKO GAIAK

ASISTENTZIA: 30 lagun (12 gizon eta 18 emakume)

Auzokideek honako gai hauek plazaratu zituzten.

GOIENURI: Goienuri kalean aparkaleku falta dago./Goienuri 3ko espaloiaaren altuera jaistea.

ISASI: Ugarteko biribilgunea egiten denean Isasirako igoera 25-30 metrotan zabaltzea.

ELLAKURI: Banku gehiago jartzea Ellakurirako bidean, solte dagoen banku bat finkatzea./Igerileku eta Ugarteren artean abiadura kontrolatzeko sistemak, adibidez Okondon ezarri dena, abian jartzea ea posible den.

PLAZA/ERDIALDEA: Ugarteko biribilgunea noizko./Ugarte 13: zarama ontziaren kokapenez eztabaida dago, etxerako sarbidea egoera txarrean./"Envaseseko zelaia" delakoan (Ugarte 21en atzean) aparkalekua, haur parkea edo dena delakoa egitea./Sallénen denda eta dorretxearen pareko etxeen aldean oinezkoen bidea ezartzea eskatu

LAMUZA: Parkearen aurreko ekimen publikoz eraikitako etxeetatik hatsa darien urak ateratzen dira./Iturriaga 8ren parean zuhaixkek kalea oztopatzen dute, bi pinu moztea. zen./Okondo-Gasteiz autobusaren geralekua zentrikoagoa den lekuren batera mugiaraztea posible den galdetu zen.

SAGASTI: Auzoaren hasiera eta amaierako berdeguneen aurreko bateriako aparkalekuak aldatzea./Landaredia leku batzuetan gehiegi hazi da, mozteko eskaera./ Bi kasuetan iritzi desberdinak daude auzoan.

APARKALEKUAK: Ugarte 9ko aparkalekua egoera txarrean dago, asfaltatzea.

OROKORRA: Estolderiaren garbiketaz galdera egin zen./Ibaiaren garbiketaz eta zuhaitzen mozketaz ere galdera egin zen./Errepidetik dabiltzanean zaldien kaka garbitzea./Ugartek zerbitzu onak dituen eremu publikoa (hau da plaza, kirol-pista, komuna, jolastokia eta komertzioekin) du, aldiz ez dago ekimen kulturalik. Kultura auzora ekartzea eskatzen da, udan-eta proba egiteko zerbait antolatzea bai ume zein helduentzat.

TEMAS ASAMBLEA MUNICIPAL DE UGARTE 2009

ASISTENCIA: 30 personas (12 hombres y 18 mujeres)

Los vecinos y vecinas del barrio plantearon los siguientes temas:

GOIENURI: Hay falta de aparcamientos en la calle Goienuri./Bajar la altura de la acera de Goienuri 3.

ISASI: Cuando se haga la rotonda de Ugarte anchar durante 25-30 metros la subida a Isasi.

ELLAKURI: Poner más bancos en el camino a Ellakuri, fijar un banco suelto./Se pregunta si es posible instalar un sistema, como el que se ha puesto en marcha en Okondo, para controlar la velocidad entre las piscinas y Okondo.

PLAZA/CENTRO: Para cuándo la rotonda./Ugarte 13: debate sobre ubicación de contenedor, entrada a la casa en mal estado./En la "campa de Envases" (detrás de Ugarte 21) hacer un parking, parque infantil o lo que sea./Hacer un paso de peatones a la altura de las viviendas frente a la tienda de Sallén y casa torre./Se pregunta si es posible mover la parada del autobús Okondo-Gasteiz a una ubicación más céntrica.

LAMUZA: Salen aguas con mal olor de las viviendas de protección oficial enfrente del parque./Enfrente de Iturriaga 8 los matos obstaculizan la calle, se pide cortar dos pinos.

SAGASTI/MANZANAL: Cambiar los aparcamientos en batería frente a las zonas verdes del comienzo y final del barrio./La vegetación en algunos puntos ha crecido demasiado, petición de poda./ En ambas peticiones se expresaron opiniones divergentes.

APARCAMIENTOS: El aparcamiento de Ugarte 9 está en mal estado, asfaltarlo.

GENERAL: Se preguntó sobre la limpieza del alcantarillado./También sobre la poda y limpieza del río./ Limpiar la carretera después de que los caballos hayan andado por ella./Ugarte tiene un espacio público, la plaza, con servicios públicos (la plaza, con su pista deportiva, WC, zona de juegos y establecimientos), sin embargo falta actividad cultural. Se pide traer cultura al barrio, por ejemplo organizando experimentalmente alguna actividad tanto para niños como para adultos.

UGARTEKO UDAL ASANBLADA 2011. ALDEZ AURREKO INFORMAZIOA

ASAMBLEA MUNICIPAL DE UGARTE 2011. INFORMACIÓN PREVIA.

2010EKO UGARTEKO UDAL ASANBLADAN JORRATUTAKO GAIAK

▪ Asistentzia: 41 lagun (21 emakume / 16 gizon)

HAPOaren aurrerapenari buruzkoak ez dira laburpen honetan jaso, gaur gaurkoz honen garapena zein izango den ez baita ezagutzen. Edozein kasu gai honek asanblada eta berariazko bilerekin prozesu partehartzaile propio bat jarraituko du.

GOIENURI: Asfaltoa hobetu.

ISASI: Sagasti eta Isasiren arteko eremuko sasiak garbiketa hobetzeko eskaera./"Isasi auzoa" izendapena "Isasi kalea" delakoarekin aldatu ote den galdetu zen./Asfaltatzea hobetzeko eskaera./Isasirako igoera zabaltzea, bi auto pasa daitezen lortzeko.

PLAZA/ERDIALDEA: Ugarte kaleko asfaltatze lanak 13-15 zenbakien parean gelditu dira./Ugarte kalean banku falta dago./Gorbea tabernaren inguruan baldosak aldrebes jarrita eta irristakor daude; gainera errepidera sartzeko ikusgarritasun faltagatik ispilua eskatzen da, baita oinezkoen bide bat zonalderako./Biribilgunea noizko./Ugarte 13-15: sasiak moztea, kaleko norabide bakarraren eta aparkalekuen marrak pintatzea, aldaparen badena kentzea.

LAMUZA: Parketik hurbil ur zikinak ateratzen dira, zergatik?/Zuberoa kaleaz: kale edana egiten da eta zarata handia dago asteburuetan; garbiketa goizetan oso goiz hasten dela ere aipatzen da, horrek dakarren zarata guztiarekin; behar ez diren aparkatzeak (espaloietan igoz) egiten direla ere aipatu zen.

SAGASTI-LEZEAGABIDE: Asfaltatzea./Banku berriak ipintzea./Garbiketa gehiago, futbito txapelketan ere bai./Eskailerak konpontzea, txarto daude eta./Jaietan kale edanagatik sortzen diren arazoei aurre egitea, Udaltzaingoaren laguntzaz./Aparkalekuak zaindu txapelketan zehar./Kableek lurperatu barik segitzen dute./Sarreran, gurutzean aparkatze okerrak egiten dira./Autoen abiadura kontrolatzeko eskaera; norabide bakarra edo oinezko bidea ipintzeko aukera aztertzea./Lezeaga aldean jolasgune gehiago egongo ote dira? Lezeagabideko konponketa lanak osatzea eta zubiraino egitea./Etxe batzuetako oztipo arkitektonikoak konpontzea.

OROKORRA: Ibaiaren garbiketa./Trafikorik gehien dauden orduetan Udaltzaingoak trafikoa arintzea./Estolderia garbitzea, toki batzuetan ura gelditzen da euria egiten duenean./Zenbait lekutan sasiak moztea eta garbitzea./Gazte edo helduentzako hitzaldiak, menpekotasunaren legeaz edo gizarte-laguntzez./Laudioko erdialdean baino egiten ez diren ekitaldi kulturalak (umeentzat, pailazoak, tailerrak) auzora ekartzea./Jaietan apurketak egon ohi dira.

TEMAS ASAMBLEA MUNICIPAL DE UGARTE 2010

▪ Asistencia: 41 personas (21 mujeres / 16 hombres)

Se han eliminado del presente resumen los temas relativos al avance del PGOU por desconocerse a día de hoy cuál será su evolución. En cualquier caso seguirá un proceso propio de participación con asambleas o reuniones específicas.

GOIENURI: Mejorar el asfaltado.

ISASI: Petición de mejorar la limpieza de la ladera entre Isasi y Sagasti./Pregunta sobre si se ha cambiado la denominación "barrio de Isasi" por "calle Isasi"./Petición de mejora del asfaltado./Ampliar la subida a Isasi para que pasen dos coches.

PLAZA/CENTRO: Los trabajos de asfaltado se han detenido a la par de los números 13-15./Falta un banco en la calle Ugarte./Cerca del bar Gorbea las baldosas están al revés y resbalan; por falta de visibilidad al entrar a la carretera se pide un espejo, también un paso de peatones para la zona./Rotonda, para cuándo./Ugarte 13-15: se pide cortar enredaderas y zarzas, pintar la dirección única y los aparcamientos, quitar el badén de la cuesta.

LAMUZA: Cerca del parque salen aguas fecales, ¿por qué?/Calle Zuberoa: se hace botellón y hay mucho ruido los fines de semana; la limpieza empieza muy pronto a la mañana y produce ruido; se aparca donde no se debe (encima de aceras).

SAGASTI/MANZANAL-LEZEAGABIDE: Asfaltar./Poner bancos nuevos./Más limpieza, también en el campeonato de futbito./Arreglar las escaleras, están mal./Atajar los problemas que crea el botellón en las fiestas con la Municipal./Vigilar los aparcamientos durante el campeonato./Los cables siguen sin soterrarse./En la entrada, en el cruce se aparcan coches mal./Petición de controlar la velocidad de los coches; estudiar el poner dirección única o posibilidad de paso de peatones./¿En la zona de Lezeaga habrá más zonas de juegos? Completar las obras de Lezeagabide y llegar hasta el puente./Quitar las barreras arquitectónicas de algunas casas.

GENERAL: Limpieza del río./Que en las horas punta la Municipal agilice el tráfico./Limpiar el alcantarillado, el agua se retiene en algunos lugares cuando llueve./Limpiar y cortar los matos de algunas zonas./Organizar charlas para jóvenes o adultos sobre la ley de dependencia o las ayudas sociales./Traer al barrio actos culturales (infantiles, payasos, talleres...) que no se hacen más que en el centro de Laudio./Suele haber destrozos en fiestas.

UGARTEKO UDAL ASANBLADA 2011. ALDEZ AURREKO INFORMAZIOA

ASAMBLEA MUNICIPAL DE UGARTE 2011. INFORMACIÓN PREVIA.

GAIORDEN PROPOSAMENA:

- 1.- Gaiorden proposamenaren onarpena.
- 2.- Hurrengo auzo asanbladen mekanismoari buruzko iritziak eskatuko ditu Udalak.
- 3.- Ekaineko hauteskunderen ostean sortutako Udalbatza berriaren ostean, Gobernu Taldeko kide batek Udalaren egungo egoeraren berri emango du: egoera ekonomikoa, orain arte emandako urratsak, Aldundia eta gainerako erakundeekin izandako harremanak eta abar. Urteko kudeaketa txostena burutzeari buruzko informazioa.
- 4.- Galdera, zalantza eta kritiketarako auzokideentzako txanda irekia. Gaiak taldekatzen saiatuko da. Helburu nagusia Ugarteko kezken argazki eguneratua eskuratzea da.
- 5.- Alkatearen, udal teknikarien eta presente dauden talde politiko bakoitzeko ordezkari banaren erantzun txanda.
- 6.- Auzokideentzako gaien puntualizazio edo sakontzerako txanda azkarra.
- 7.- Asanbladaren itxiera alkatearen eskutik.

*** Idazkari gisa jardungo duen udal teknikari batek planteatzen diren gai guztien oharrak jasoko ditu, kexu, galdera, ekarpen edo iradokizun gisa sailkatuz.

Beste udal teknikari batek moderatzaile gisa jardungo du.

Asanblada ospatu eta egun gutxira auzoan honako orri honen tankerako bat banatuko da, asanbladaren akta jasoz. Bertan planteatutako gai guztiak jasoko dira, baita bakoitzari emandako erantzunak ere. Horrela, hurrengo asanbladetarako erreferentzia gisa baliogarri izango den euskarri horrekin bertaratzerik izan ez dutenei informazioa luzatu nahi zaie.

PROPUESTA DE ORDEN DEL DÍA:

- 1.- Aprobación de la propuesta de Orden del Día.
- 2.- Solicitud de opinión por parte del ayuntamiento sobre el mecanismo de asambleas de barrio de cara al futuro.
- 3.- Breve presentación de la situación actual del ayuntamiento tras la incorporación de la nueva corporación surgida tras las elecciones de junio: Situación económica, ordenanzas, relaciones con Diputación y otras instituciones, etc. Información sobre la realización de un informe de gestión anual.
- 4.- Turno abierto de preguntas, dudas y críticas por parte de los vecinos y vecinas. Se procurarán agrupar por temas. El principal objetivo es obtener una radiografía actualizada de las preocupaciones de Ugarte.
- 5.- Ronda de respuesta del alcalde, de los técnicos municipales y de los grupos políticos presentes.
- 6.- Turno rápido de puntualizaciones o ampliación de cuestiones por parte de los vecinos.
- 7.- Cierre de la asamblea por parte del alcalde.

*** Un técnico municipal que ejercerá de secretario/a, tomará nota de todas las cuestiones que se planteen, clasificándolas como quejas, preguntas, aportaciones o sugerencias.

Otro técnico municipal ejercerá de moderador

Unos días después de la asamblea se buzoneará en la zona una hoja similar a esta donde se recogerá el acta de la asamblea. En ella aparecerán todos los temas planteados así como las respuestas a cada uno de ellos, con el objetivo de informar a quienes no hayan podido asistir, y con la intención de que sirva de referencia para posteriores asambleas.